

**Euskaldunok mintzo****[*Hablando con los vascos*, 1974]**

Amatiño

*Zeruko Argia*, 582. zk., 1974-04-28: 4.

"Hablando con los vascos" izenburupean liburu irakurgarri bat argitara eman berri du Barzelonako ARIEL editorialak. Egileak, Martin Ugalde kazetariak, ohi duen maisutasun eta trebetasunarekin, aspaldi honetan euskal mugimenduaz gaztelaniaz egin den lanik interesgarrienetako bat moldatu digu.

Ugaldek, euskal mugimenduaren berri eman nahi izatean, nahiago izan du zenbait elkarrizketa taxutu, bere hainbat iritzi soil eskaintzea baino. Eta, bere kazetari zentzu horretaz baliatzean, baldin haseran hogeiren baten iritziak biltzeari ekin bazion ere, azken batez seirenak baino ez ditu agertarazi, elkarrizketa bakoitzari hedadura gehiago emanez, irakurleari zenbait jokabideren berri jakinaraziz gainera, jokabide hoik baldintzapetzen dituzten giro, asmo eta helburuez ere jakin ahal dezan.

Esan bezala, sei izan dira elkarrizketa hoitan nork bere aldetik parte hartu duten kultur-gizonak, hots, Jose Miguel Barandiaran etnografia sailean, Ramón de la Sota industrilari eta itsas-gizon bezala, Koldo Mitxelena hizkuntzalari gisa, Aita Arrupe erlijio giroaren berri-emaille, Isidoro Fagoaga kantari ospetsu izan zenez gero, eta Agustin Ibarrola egungo pintatzaile denaren aldetik.

Batek zein bestek iritzi guztiz interesgarriak ditu nork bere jakineko sailari buruz, bai eta Euskal Herriko egoera konkretu bezain orokorrari buruz ere. Iritziok, jakina, ez dira seirotan berdintsu, hala ere uka ezina zera da, modu batez zein bestez esanez, seiron ustetan Euskal Herriak –iraunen badu– bere etorkizunaren jabe bilakatu behar duela, ekonomi, sozial eta kultur arlotan.

Liburu interesgarria, beraz, irakurgarria irakurgarririk bada, bai euskaldunentzat eta are gehiago, behar bada, ez direnentzat.